

BERTSOLARIEN ESTROFA-MOTAK HEGOALDEKO USARIOAN

Donostia, 1981-X-29

Juan M.^a Lekuona

Euskarazko herri-poesian azaltzen den estrofen mundu zabal eta nahasiaz mintzatzerakoan, bertsolarien estrofez eta Hegoaldeko usuarioari jarraituz hitzegingo dugula esaten badugu, bi mugaketa oso garrantzizkoak ezarzen dizkiogu gaiari.

Alde batetik, kanpoan gelditzen dira mila ñabardurez josiak agertzen zaizkigun kantutegi zaharretako estrofa-motak. P. Lafittek esaten digunez, eta maite-kantuez bakarrik ari delarik, hau dio:

“Kontatu ditut 24 bertsu mota, eta 16 neurtiz mota; baditake ez nintzaian deneri ohartu” (1).

Beraz, kantutegietako mundua baino mugatuagoa dela esan behar, guk oihan zabal horretan markatu dugun barrutia.

Bestalde, Hegoaldeko usuarioari bakarrik atxikitzeak ere, gaiaren luze-zabala urri dezake, noski, mugaz-honantz hainbeste estrofa-mota ez daudenez. Baina ugaritasuna urritzeaz gainera, bigarren mugaketa da, gaia nola ikusten den, gauza hauek ikusteko eta erabakitzeke bi tradizio daudenez mugaren bi aldetan. Bi oharkizun hauek J. Haritschelharrek egiten dizkigu bere liburu baliotsuan (2).

Bi mugaketa hauek egin ondoren, diogun orain gure helburua: Hegoaldean irakaskuntza-mailan erabili ahal izateko sistematizazio-lana egin nahi genuke, arloari dagozkionetan. Oinarri hartuko ditugu mugaz-honanzko usarioa, jendaurreko bertsogintzaren eta bertso-paperen inguru bizi ohi dena, eta beste ikerlarien lanek osatzen dutena ere bai, bakoitzak bere arloan.

* * *

(1) P. LAFITTE, *Amodiozko kantuak Lapurdin, Baxenabarren eta Ziberuan*, in “*A los 100 años de su muerte, Bilintx (1831-1876)*”, Donostia, 1978, 36 or.

(2) J. HARITSCHELHAR, *Le poète souletin Pierre Topet-Etchahun (1786-1862)*, “*Ci-no del Duca*”, Biarritz, 1969, 507 eta 478 or.

Estrofaren ezaugarriak bereizteko, ez daukagu herriaren iritziekin eta sistemekin bakarrik ibiltzerik. Praxi aldetik doinuak ematen digu irtenbide: airea aipatuz gero, estrofaren neurkera nolerebait zehaztua daukagu. Hori bai, doinuaren deitura konkretuak zailtasunak sor ditzake, euskalki eta bailara desberdinetan deitura konkretu hori izenburu desberdinez ematen denez. Dena den, herriaren jokabide honek ibilbide oso mugatua du irakaskuntzan, eta zerbait zehatzagoa bilatu beharra dagoela bistan da.

Hegoaldeko usarioan, bestalde, bertso-zaleek ba dute doinuaren aipamen konkretua baino zerbait abstraktoagorik, gero ikusiko dugunez. Hor daude zortziko txikia, zortziko nagusia, hamarreko txikia, hamarreko nagusia, bederatziko puntukoa, zortziko puntukoa, koplak eta abar. Oso estimagarriak dira izen hauek. Baina zerbait osoagoa nahi litzateke, zerbait sailkatuagoa, zerbait sitematuagoa. Eta hauxe izan da gure helburua: ezaugarri berdintsuen arabera multzoak osatu, eta multzo hauetako adibide desberdinei izen egokiak bilatzen saiatu, izenak izana aditzera ematen duela.

Lan-metodoa osatzeko, Hegoaldeko usarioan nahiko zehaztuak dauden xehetasunak hartu ditugu abiapuntu: bai estrofa-moten aldetik, bai hauek izendatzeko erabiltzen diren deituren aldetik. Hortik abiatuz, logikaren amorer ahal dela, edota literatura mailako kideasunaren amorer, beste izen batzuk ere ezarri ditugu, nahiz eta herriaren onarpenik ez duten.

* * *

Sailkapena egiteko, beharrezkoa iruditu zaigu puntu hauek kontuan edukitzea: bertso-lerroen silabak eta egitura erritmikoa, errimen lekua eta ugartasuna, estrofa idazkerarako ematen dituen posibilitateak, eta estrofa moldiztegi hartzen duen forma eta aurkezpena. Alderdi hauetan berdintsu edota antzeko direnak multzotan bilduz, estrofa jeneroak azaldu; eta hauen arabera, eta herriaren usariotik abiatuz, izenak ezarri, hau da multzoaren jenero, eta estrofa bakoitzaren xehetasun berezia adieraziko dituzten izenak.

Oso behin-behingo jotzen dut lan hau. Izan ere, berez da zaila lanaren ezkutua asmatzea gutxi ezagutua den arlo batetan (3). Gero, asmatzea bakarra ez da nahikoa, irakaskuntzan, beste arloetan bezalatsu, jendearen erabilkerak duenez azken hitza irakaspenaren onari buruz. Gehiago oraindik, gure aburuz, taldean egin beharreko lana dela uste dugu euskal metrikaren sistematizatzea eta izendatze egokia eta zehatza. Beraz, bitartean, bego hor gure ekarria, talde-lan zabalaren, eta beste edozein oharkizun sakonagoren, zain.

(3) F. M. ALTUNA, *Versificación de Dechepare, Métrica y pronunciación*, "El Mensajero", Bilbo, 1979, 121 or.

1. MOLDE NAGUSIAK

1.1. Adibideak

1. “Mutil koxkor bat itxu-aurreko
zubela aldamenian,
gizon buru-soil, bizar-zuri bat
bi makuluren gañian,
kale ertzian ikusi nuben
iñora ezin joanian;
ta bera nor zan jakin nayian
inguratu nintzarian...
limosnatxo bat eskatu zidan
Jainkoaren izenian” (4).
2. “Zenbat errezo egin izan det
nere denboran elizan;
ta pozik nago ikusirikan
pakian nola gabiltzan.
Ni naizen bezin kobarderikan
iñor ezin leike izan,
semiak gerra ez joateatik
mutil zar gelditu nintzan” (5).
3. “Jose Joakin Izuelako
auspez lurlean jarririk,
bizkarra ere makurtu zaizu
bakartasunez beterik;
admiraturik aurkitutzen naiz
ez dezulako andrearik” (6).
4. “Harmen hartzera deitu ninduen
gazterik zorte etsaiak;
urrundu nintzen, herri alderat
itzuliz usu begiak” (7).

(4) I. UNZURRUNZAGA, *Pedro Mari Otañoren bertsoak*, in “Kuliska Sorta”, 31-32 z., Zarauz, 1959, 55 or.

(5) A. ZAVALA, *Txirrita. (Bizitza ta bat-bateko bertsoak)*, in “Auspoa”, 18-19 z., 222 or.

(6) ID., *Pastor Izuela (1780-1837), Ezkioko ta Segurako itxuak*, in “Auspoa”, 106 z., 79 or.

(7) KKK, *Solferinoko itsua*, 254 or.

1.2. Eskema metrikoak

Hamarreko nagusia	Zortziko nagusia	Seiko nagusia	Lauko nagusia
10 – 8 A	10 – 8 A	10 – 8 A	10 – 8 A
10 – 8 A	10 – 8 A	10 – 8 A	10 – 8 A
10 – 8 A	10 – 8 A	10 – 8 A	
10 – 8 A	10 – 8 A		
10 – 8 A			

1.3. Azterketa

1.3.1. Hamarreko nagusia

a) *Adibide ezagunak*: asko eta asko daude.

b) *Deskribaketa*: hamar bertso-lerro ditu eta izena ere hortik datorkio, noski. Pareak ez diren bertso-lerroak 1, 3, 5, 7, 9, libreak dira; eta pareak, 2, 4, 6, 8, 10, errimadunak. Hegoaldeko tradizioak horrela ikusten du eskuarki; eta deitu ere horrela deitzen dio.

1.3.2. Zortziko nagusia

a) *Adibide ezagunak*: jendaurrean gaurregun gehienik erabiltzen den bertso-moldea dugu; esenplu asko eta asko daude.

b) *Deskribaketa*: zortzi bertso-lerro ditu, eta izena ere hortik datorkio, noski. Pareak ez diren bertso-lerroak, 1, 3, 5, 7, libreak dira; eta pareak, 2, 4, 6, 8, errimadunak. Hegoaldean horrela ikusten da, eta deitu ere bai, eskuarki behintzat.

1.3.3. Seiko nagusia

a) *Adibide ezagunak*: gutxiago daude ereduak. Gaurregun galduxe badago ere eredu hau erabiltzeko ohitura, XIX mendeko lehen partean ba dago horrelako bertso-motarik. Adibidez, “Berdabioren bertsoak” (8), “Amodioa zoin den zoroa” (9), eta abar.

(8) J. M. LEKUONA, *Berdabioren bertsoak*, in *Oiartzun*, 11 (1981), 17-19 or.

(9) KKK, 71 or.

b) *Deskribaketa*: sei bertso-lerro ditu, eta izena ere hortik har dezake goiko beste ereduai jarraituz. Pareak ez diren bertso-lerroak, 1, 3, 5, libreak dira; eta pareak 2, 4, 6, errimadunak. Hegoaldean gutxi erabilia dela esan dugu, eta, behar bada horregatik edo, izen ezagunik ez du bertsozaleen artean.

1.3.4. *Lauko nagusia*

a) *Adibide ezagunak*: bertsolariek ez dute erabiltzen, ez jendaurrean, ez bertso-paperetan. Hala ere, ba daude bertsozaleen munduan kantatzen diren zenbait eredu; hala nola, "Solferinoko itsua" (10), Basarriren "Arantzazu!" (11) eta abar.

b) *Deskribaketa*: lau bertso-lerro ditu, eta hortik har daiteke molde honentzako izena, seikoarekin egin dugun antzera. Pareak ez diren bertso-lerroak, 1, 3, libreak dira; eta pareak, 2, 4, errimadunak. Gutxi erabilia denez, ez du izen ezagunik, nik dakidala, bertsozaleen artean.

1.4. Ezaugarri zabalak

1.4.1. Oro har, estrofa heterometrikoa da, eta errima bakarreakoa, monorrimoa. Hamarreko bertso-lerroa, etenaldiaren bidez, 5 + 5 egiten dute. Funtseko eskema, 5 + 5 // 5 + 3 dute.

1.4.2. Hitezko artegintzarako, errimatik errimara 18 silaba dituzenez, honek erritmo bat ematen dio pentsamenduaren eta sentipenen hariari: patxadakoa da, posibilitateak ditu bapateko bertsogintzarako; baina, baita ere, monotoniaren arriskua izan dezake (12).

1.4.3. Gorputz expresaeraren aldetik, eta ahots-tinkapenaren aldetik, batez ere, tetrapodioak liriateke, M. Lekuonaren ikusmoldez (13), bertso-lerro horiek.

1.4.4. Bistan da, ez dela berdina estrofen dinamika hamarreakoa denean, edo zortzikoa, edo seikoa, edo laukoa, luzerak pentsamenduaren eta esaldien egituran bere eragina ba duenez.

(10) KKK, 254 or.

(11) I. EIZMENDI, *Basarriren Bertso-Sorta*, "Itxaropena", Zarauz, 1950, 51-53 or.

(12) "Zortziko orrek berez dauan bardin-ots lo-erazlea, Orixeri ain gogaikarri yakona", S. ONAINDIA, *Gure bertsolariak*, "Gráficas Bilbao", Bilbo, 1964, 97 or.

(13) M. LEKUONA, *Literatura oral vasca*, in "Idaz-lan guztiak", It., "Kardaberaz Bil-duma", 22 z., Gasteiz, 1978, 319 or.

1.5. Izendapena

1.5.1. Esan dugunetik berez datorren gauza litzateke, gure iduriko. Hamarreko nagusia eta zortziko nagusia Hegoaldeko usuarioak erabiltzen dituzenez, eta beste bi ereduak horien ezaugarri zabaletara isurtzen direnez, bidezkoa dirudi, noski, seiko nagusia eta lauko nagusia ere erabiltzea.

1.5.2. Izendapenean urruntzen gara, noski, S. Onaindia-gandik; ez, agian, funtsean: “Zortziko andi onek, dio berak, geienez zortzi puntu dauz; baiña izan daitezke gitxiago edo geiagokoak be, au da, lau puntukoak edo amar puntukoak” (14).

1.5.3. J. Haritschelharrek, Ifarraldeko usuarioari jarraituz, “lauko” monorrimoa deitzen dio gure zortzikoari, bostekoa hamarrekoiari, eta horrela (15).

2. MOLDE TXIKIAK

2.1. Adibideak

1. “Lagundurikan danoi
gugatik il zanak,
seme, azi zaitugu
aitak eta amak,
beti zure gidari
izandu geranak.
Orain gurutze onen
oiñean esanak
ondo gogoan artu
biaituzu danak” (16).
2. “Gernikako Arbola
da bedeinkatua,
euskaldunen artean
gutziz maitatua.
Eman da zabal zazu
munduan frutua;
adoratzen zaitugu
arbola santua” (17).
3. “Lenengua fedia,
gero esperantza;
irugarrengo orrek
ba dabil mudantza:
len zen karidadia,
orain da bengantza” (18).
4. “Zazpi Eskual-Herriek
bat egin dezagun;
guziak bethi, bethi
gauden gu Eskualdun” (19).

(14) S. ONAINDIA, *ibid.*, 108 or.

(15) J. HARITSCHELHAR, *Le poète souletin Pierre Topet-Etchahun (1786-1862)*, 476 or.

(16) I. UNZURRUNZAGA, *ibid.*, *Aita-semeak*, 67 or.

(17) J. J. BALUSTEGI, *Iparragirrearen olerki-eresien bilduma ta erti-iritzi laburra*, “Koldobika Rodriguez”, Oñati, 1933, 10 or.

(18) A. ZAVALA, *Pastor Izuela...*, 33 or.

(19) KKK, *Agur eta ohore Eskual-Herriari*, 7 or.

2.2. Eskema metrikoak

Hamarreko txikia	Zortziko txikia	Seiko txikia	Lauko txikia
7 –	7 –	7 –	7 –
6 A	6 A	6 A	6 A
7 –	7 –	7 –	7 –
6 A	6 A	6 A	6 A
7 –	7 –	7 –	
6 A	6 A	6 A	
7 –	7 –		
6 A	6 A		
7 –			
6 A			

2.3. Azterketa

2.3.1. Hamarreko txikia

a) *Adibide ezagunak*: asko eta asko daude.

b) *Deskribaketa*: hamar bertso-lerro ditu eta izena hortik datorkio; pareak ez direnak, zazpi silabakoak eta besteak, pareak direnak, sei silabakoak. Eta pareak ez diren bertso-lerroak, 1, 3, 5, 7, 9, libreak dira; eta pareak, 2, 4, 6, 8, 10, errimadunak.

2.3.2. Zortziko txikia

a) *Adibide ezagunak*: hamarreko txikia baino gehiago erabiltzen da eskuarki.

b) *Deskribaketa*: zortzi bertso-lerro ditu, eta izena hortik datorkio, noski. Neurriak zazpi eta sei silaba dira, gorago esan dugunez. Pareak ez diren bertsoleroak, 1, 3, 5, 7, libreak dira; eta pareak, 2, 4, 6, 8, errimadunak. Hegoaldean horrela ikusten da.

2.3.3. Seiko txikia

a) *Adibide ezagunak*: gutxi daude ereduak. Adibidea, Izuelako Artzaiari jaso, “lenengua fedia” deritzana, hain zuzen ere XIX garren lehen aldiko bertsolari batengandik hartua.

b) *Deskribaketa*: sei bertso-lerro ditu. Pareak ez diren bertso-lerroak, 1, 3, 5, libreak dira; eta pareak 2, 4, 6, errimadunak. Dauden adibide eskasak sail honetan sartzen ditugu, beste goikoen taxukera bera duelakotz, gero esango dugunez.

2.3.4. Lauko txikia

a) *Adibide ezagunak*: bertso-saiotan baino gehiago, errepikatzean erabili ohi da. “Zazpi Eskual-Herriek/ bat egin dezagun” (20), eta zenbait horrelako. Eredu gehiago aurki daitezke erromantzeen sailean.

b) *Deskribaketa*: lau bertso-lerro ditu, pareak ez direnak zazpi silaba-koak eta pareak, besteak, seikoak. Pareak ez diren bertso-lerroak, libreak dira, pareak errimadunak. Ez du noski, izen berezirik herrian.

2.4. Ezaugarri zabalak

2.4.1. Oro har, estrofa heterometrikoa da, eta errima bakarrekkoa, monorrimoa. Zail da aurkitzen barruko etendurak egiteko lege jakinik.

2.4.2. Hemen hamahiru silabetara urritzen da errimatik errimara hitzeko artegintzarako posibilitatea: azkarra da; hitzaren hotsak, puntuaren ahoskerak, balio handia du, batez ere bertsolari zaharretan; ez du monotoniaren hainbesteko arriskurik.

2.4.3. Gorputz-espresaeraren aldetik, eta batez ere ahots kantariaren tinkapenen aldetik, tripodioak lirateke bertso-lerro horiek (21).

2.4.4. Gorago aipatu dugunez, ez bide da gauza bera estrofa horien guztien dinamika, estrofa luzeen eboluzioa aberatsagoa denez, eta motzena, berriz, biziagoa.

2.5. Izendapena

2.5.1. Bertsolaritza ezagunean bi lehenengoak erabiltzen dira: hamarreko txikia, eta zortziko txikia. Eta beste biak, antzeko egitura dutenez, eta lehengo bien ezaugarri zabaletara errenditzen direnez, bidezko dirudi deitura hau erabiltzea: seiko txikia eta lauko txikia.

2.5.2. J. M. Leizaolak “zortziko berria” deitzen dio honi, hirugarren zortzikoa bait litzan: “soy quien le apellida nuevo” (12). Onaindiak ere izen hau darabil idazlanaren eskeman, nahiz eta barruan bere oharkizunak ezarri (23). Haritschelharrentzat hau ere “lauko” bat litzateke, “le quatrain monorime” (24), nahiz eta izen-kontuan erne ibili beharra dagoela aditzera emandakoan ohar jakingarriak egiten dituen.

(20) KKK, 7 or.

(21) M. LEKUONA, *ibid.*

(22) J. M. LEIZAOLA, *Estudios sobre la Poesía Vasca*, “Ekin”, Buenos Aires, 1951, 90-91 or.

(23) S. Onaindia, *ibid.*, 110-113 or.

(24) J. HARITSCHELHAR, *ibid.*, 477 eta hurrengoak.

3. MOLDE KLASIKOAK

3.1. Adibideak

1. “Kobla horren emailia
ezta laboraria,
zunbait markis, edo kunte,
edo kardinalia!
bürdünarik dianian
zintzarri egilia” (25).
2. “Argi-azkorrian jinik
ene arresekila,
bethi beha, entzün nahiz
nunbaitik zure botza.
Ardiak nun ützi tüzü?
Zerentako errada
nigarrez ikhusten deizüt
zure begi ederra?” (26).
3. “Gai orrek ba du mamia
baldin ezpanago gor,
ainbat jende, gizaseme
ikusten ari naiz or;
ogiaz gain gizonari
anitz gauza zaio zor,
bestela mundu ontara
obe ez gaitezen sor;
ogiakin justizia
bear dugu derrigor;
au sinisten ez duenik
ba al da emen inor?” (27).

* * *

(25) KKK, *Ni deitzen nuk Benat Mardo*, 198 or.

(26) KKK, *Agota*, 133 or.

(27) *Bertsolari-txapelketa Nagusia*. (*Donostia, 1980-I-6*), in “Auspoa”, 141 z., 80 or., X. Amurizak kantatua.

3.2. Eskema metrikoak

Hamabiko klasikoa	Hamarreko klasikoa	Zortziko klasikoa	Seiko klasikoa	Lauko klasikoa
8 —	8 —	8 —	8 —	8 —
7 A	7 A	7 A	7 A	7 A
8 —	8 —	8 —	8 —	8 —
7 A	7 A	7 A	7 A	7 A
8 —	8 —	8 —	8 —	
7 A	7 A	7 A	7 A	
8 —	8 —	8 —		
7 A	7 A	7 A		
8 —	8 —			
7 A	7 A			
8 —				
7 A				

3.3. Azterketa

3.3.1. Hamabiko klasikoa

a) *Adibide ezaguna*: “Argi azkorrian jinik” hartu dugu, nahiz bertsolate adibiderik, noski.

b) *Deskribaketa*: hamabi bertso-lerro ditu. Pareak ez diren bertso-lerroak, 1, 3, 5, 7, 9, 11, libreak dira; eta pareak direnak, 2, 4, 6, 8, 10, 12, errimadunak. Ez da agertzen horrelako neurketarik Hegoaldeko usuarioan.

3.3.2. Zortziko klasikoa

a) *Adibide ezaguna*: “argi azkorrian jinik” hartu dugu, nahiz bertsolatizatik zertxobait erten poesi eredu hau.

b) *Deskribaketa*: zortzi bertso-lerro izanik, pareak ez direnak, libre 1, 3, 5, 7; eta pareak berriz, errimadun, 2, 4, 6, 8. Klasikoetan asko erabilia.

3.3.3. Seiko klasikoa

a) *Adibide ezaguna*: “ni deitzen nük benat Mardo”, “Mus de Tiraz, zük enaizü”, “Atzo tun-tun” eta abar.

b) *Deskribaketa*: sei bertso-lerro ditu. Pareak ez diren lerroak, 1, 3, 5, libreak; 2, 4, 6, errimadunak. Eliz gorazarreen hildotik doala dirudi.

3.4. Ezaugarri zabalak

3.4.1. Oro har, estrofa heterometrikoa da, eta errima bakarrekoa, monorrimoa.

3.4.2. Funtsean eskema fijo hau darama: $4 + 4 // 4 + 3$; beti berdin.

3.4.3. Idazteko posibilitateak, 15 silaba errimatik errimara; eta, dinamikaren aldetik, molde nagusiaren eta txikiaren arteko.

3.4.4. Gorputz expresaeraren aldetik, tetrapodio fijoak dugu, binako oinak eginez beti.

3.4.5. Molde luzeak erretorika-eittea hartzen du; motzak esaldi baten eittea har dezake, lehengo estrofa-motetan bezala. Silabak zehatzegi emanaz gero, monotoniaren antzeko zerbaitek sor dezake.

3.5. Izendapena

3.5.1. Hegoaldeko bertsolaritzan ez du izen propioirik. Eta klasikoek asko erabiltzen dutenez (28), klasiko deitzea otu zaigu. Eta gero, beste biekin egin dugun bezala, azpi-sailkapena bertso-lerroen arabera, hamabikoa, zortzikoa, seikoa deitu.

3.5.2. Leizaolak eta Onaindiak zortziko txikia deitzen diote, soil soilik. Hauek $5 + 5 // 5 + 3$ eskemari zortziko nagusia deitu diote; eta eskema honi, berriz, $4 + 4 // 4 + 3$ zortziko txikia. Eta guk zortziko txikia deituari, $3 + 2 + 2 // 3 + 2 + 1$ eskemari, zortziko berria deitzen diote. Bistan da, guk hemen Hegoaldeko herri-erabiltzaile jarraitu diogula, ez multzoen azpi-egiturari, baizik eta bertso-lerroei eta silabei, eta *dinamikari* jarraituz.

3.5.3. Beste modularik sortuko balitz, adibidez hamar lerrokorik edota lau lerrokorik, beste lehenagoko ereduetan bezala, hamarrekoko klasikoa eta lauko klasikoa hitzak erabiliko genituzke, logikaren amorez.

(28) S. ONAINDIA, *ibid.*, 110 or. J. Haritschelhar, *ibid.*, 483: "le rythme (8 + 7) qui pourtant a été très en vogue aux XVI, XVII et XVIII siècles".

4. PUNTU IZENEKO MOLDEAK

4.1. Adibideak

1. "Ostegun joan danian
amabost Ernaniñ,
betroi baten tratua
genduen egiñ;
Inaziyo saltzalle,
erostuna Fermiñ,
emeretzi ezkutu
genion eragiñ;
sabelian du miñ,
iñork ase eziñ,
artuari muziñ,
ez du nai edoziñ;
atzeti bear ditu
zazpi medeziñ" (29).
2. "Prantxisku zer dakarrek
ik gure erritik?
aspaldian ez diat
ango berririk.
Zerbait jakin nai nikek
alderdi artatik:
aserria niagok,
ez dek milagrorrik.
Ez diat egunik,
ez eta arratsik,
sinista nazak ik,
pentsamentuz etxera
joan gabetanik" (30).
3. "Aizazu, Suantxa,
zer modu daukazu?
Pobre eta alegre,
zer esain degu!
Soka bat ekatzu,
lotu bear zaitugu,
baiña ez izutu;
agintzen digutena
ein bearko degu" (31).

(29) A. ZAVALA, *Xenpelar bertsolaria*, in "Auspoa", 88-89-90 z., *Betroyarenak*, Donostia, 1969, 295 or.

(30) J. DORRONSORO, *Bertsotan, 1789-1936*, "Elexpuru", Bilbo, 1981, 26 or.

(31) ID., *ibid.*, 24 or.

4.2. Eskemak metrikoak

Bederatzi puntukoa	Zortzi puntukoa	Sei puntukoa
7 –	7 –	6 –
6 A	6 A	6 A
7 –	7 –	7 –
5 A	5 A	5 A
7 –	7 –	
6 A	6 A	
7 –	7 –	
6 A	6 A	
6 A	6 A	6 A
6 A	6 A	6 A
6 A	6 A	6 A
6 A		
7 –	7 –	7 –
5 A	5 A	5 A

4.3. Azterketa

4.3.1. Bederatzi puntukoa

a) *Adibide ezagunak*: asko eta asko daude. Besteak beste, “Betroiare-nak”, “Zaldi zuriri”, “Otxalde sortuz gero”.

b) *Deskribaketa*: hamalau bertso-lerro ditu. Silaben aldetik, 7, 6, 7, 5, 7, 6, 7, 6, 6, 6, 6, 6, 7, 5; beraz, bi bost silabako daude tartean, eta gero, alternantzia hautsiz, lau seiko (9, 10, 11, 12 lerroak). Eta puntuak ere oso bereziki ezarriak, pareak direnetan, 2, 4, 6, 8, 10, 12, 14; baina baita 9, 11 pareak ez direnetan ere. Eta libreak dira 1, 3, 5, 7, 13; beraz, pareak ez direnak.

4.3.2. Zortzi puntukoa

a) *Adibide ezagunak*: gutxiago daude, noski. Ikus, adibidez,, Bordelen “Ene andregaiari”, “Frantxisku, zer dakarrek” eta abar.

b) *Deskribaketa*: bederatzi puntukoa bezalatsu; baina bertso-lerro bat gutxiago, hamabigarrena. Horregatik, alternantzia hausten duten sei silabako errimadunak, 9, 10, 11, hiru dira hemen, eta lau bederatzi puntukoan, 9, 10, 11, 12. Beste denetan berdin.

4.3.3. Sei puntukoa

a) *Adibide ezagunak*: oso gutxi. “Suantxarena” aipatzen dugu bakarrik.

b) *Deskribaketa*: bederatzi bertso-lerro ditu. Silaben aldetik, 6, 6, 7, 5, 6, 6, 6, 7, 5. Hemen ere bi bost silabako tartean, laugarrena eta azkena, beste bietan bezala. Gero, alternantzia hautsiz, hiru sei silabako errimadunak. Baina lehenengo bertso-lerroa sei silabakoa da; eta hau du desberdin beste biekien silaba aldetik.

4.4. Ezaugarri zabalak

4.4.1. Oro har, heterometrikoak dira, monorrimoak.

4.4.2. Funtsezko egituran molde txikiaren eskemari jarraitzen diote, 3 2 2 // 3 2 1 (2 2 1).

4.4.3. Gorputz-expresaeraren aldetik, berriz, tripodoak dira.

4.4.4. Idazteko posibilitateak, luze-zabalez 13, 12 silaba batzuetan; baina 6 besterik ez besteetan. Gainera, seiko hauek errimadunak izanik, birtuosismo batetara daramate poeta, zailtasuna eta dinamika berezia adieraziz. Alternantzia hausteak eta birtuosismo honek markatzen dute, batez ere, puntudunen estrofa-mota berezia. Ez honek bakarrik: hor dago, baita ere, bost silabako errematea, bi alditan, doinu-ereduaren tonikara iristean.

4.5. Izendapena

4.5.1. Ba dirudi puntuen ugaritasunak eta zailtasunak agintzen ote duten hemen-honetan; eta, beraz, ondo derizkiogu puntu izena hemen erabiltzeari.

4.5.2. Halanik ere, puntu hitzak gauza bat baino gehiago ekartzen dizkigu gogora bertsolaritzaren alorrean: errima, puntutik-punturako esaldia; eta estrofen izendapenean ere, beste multzoetan erabiltzen da, "lau puntukoa" esanez, mugaren bi aldetan gainera (32). Baina izena erabilgarri dela uste dugu, estrofa-mota jakin honi deitura ezartzeko.

(32) J. HARITSCHELHAR, *ibid.*, 478-479 or.

5. KOPLA MOLDEAK

5.1. Adibideak

1. “Eder zeruan izarra,
errekaldian lizarra,
Etxe ontako nagusi jaunak
urre gorritz du bizarra” (33).
2. “Uso polit bat, zer pena!
ezer txarrik etzubena;
biyotz oneko begi zabala
borondatia diena,
erriyan zen ederrena,
arrosa ziruriyena” (34).
3. “Berriro nator zugana,
Ama Euskadi laztana;
lan gabe dagon zure semeai
eman akiozu lana,
zuk badakizu zure semeak
lanaren gose gerana” (35).
4. “Orain kantutik txistura,
eskualdun zarren modura,
Ai, soñu alaigarri polita
hoiek jotzen duten hura!
Ekentzen dauku tristura,
baita ere sumindura,
etor baitziren mundura” (36).
5. “Bertsuak jartzen naiz asi,
kopiatauz ta guzi,
nai ditubenak ikasi;
Afrika aldera oraingo aldiyan
gazteri aundiyak duazi;
diote adierazi,
ez dela jua biar igesi;
amak negarrez daudezi” (37).

(33) M. LEKUONA, *Literatura oral vasca*, ibid., 343 or.

(34) *Bertsolariya*” (1931-1932), “Makazaga”, Errenteria, 55 orr.

(35) *Bertsolari-txapelketa Nagusia*. (Donostia, 1980-I-6), 33 or., F. Etxeberriak kantatua.

(36) XALBADOR, *Herria gogoan*, in “Auspoa”, 152 or., 44 or.

(37) A. ZAVALA, *Paulo Yanzi ta bere lagunen bertsoak*, in “Auspoa”, 77-78 z., 76 or.

5.2. Eskema metrikoak

Kopla	Kopla nagusia (a)	Kopla nagusia (b)	Kopla nagusia (c)	Kopla luzea
8 A	8 A	8 A	8 A	8 A
8 A	8 A	8 A	8 A	8 A
10 —	10 —	10 —	10 —	10 —
8 A	8 A	8 A	8 A	8 A
	8 A	10 —	8 A	8 A
	8 A	8 A	8 A	8 A
			8 A	8 A

5.3. Azterketa

5.3.1. Kopla

- a) *Adibide ezagunak*: eske-bertsoak; “Haltzak ez du bihotzik” eta abar.
- b) *Deskribaketa*: lau bertso-lerro ditu. Silaben aldetik 8, 8, 10, 8 dira funtsean. Eta errimak 1, 2, 4, lerroetan.

5.3.2. Kopla nagusia

- a) *Adibide ezaguna*: “Uso txuria” genuke, besteak beste.
- b) *Deskribaketa*: kopla bezala; baina azkenean bertso-lerro bi gehiago, hauek zortzi silabakoak eta errimadunak.

Oharra: era bat baino gehiago hartzen ditu molde honek. Hegoaldeko bertsoariak, azkeneko 8, 8 horiek 10, 8 egiten dituzte, molde nagusirako joera agertuz. Eta noizpait Xalbadorrek gure ereduaren azkeneko 8, 8, 8 horiek 8, 8, 8, 8 egin zituen musikaren errepikari ere beste hitz lerro errimaduna erantsiz.

5.3.3. Kopla luzea

- a) *Adibide ezagunak*: jendaurrean ez da erabiltzen; baina usatua da bertso-jartzaileen artean. Hala nola, “Ai, ori begi ederra”, “Ikusten duzu goizean”, “Ara non den Urnieta”, “Ezkondua eta ezkongai”, eta abar.
- b) *Deskribaketa*: multzoan koplaren eitea darama. Baina hasieran hiru zortzi silabako errimadunak, 8, 8, 8, eginez; gero hamarrekoa, eta azkenean lau zortzi silabako errimadunak berriro, 8, 8, 8, 8, eginez.

5.4. Ezaugarri zabalak

5.4.1. Oro har, heterometrikoak dira, eta monorrimoak.

5.4.2. Funtsezko egituran, molde nagusiaren eskemari jarraitzen diote, 5 + 3 lerro errimaduna, eta 5 + 5 lerro librea.

5.4.3. Idazteko posibilitatea, oso bereziak. Kopla, batetik estilizatua da, eta bestetik bertsolarien azkena du (38). Kopla nagusia, hasieran berdina da baina gero, azkenean, beste bertso-lerro errimaduna erasten dio, azkena aberastuz. Eta kopla luzeak, azkenik, hasieran eta azkenean beste bertso-lerro errimadun bat gehiago erantsiz, estrofa aberatsa ezezik, estrofa zail, landu eta bitxia izatera darama, manierismo batean.

5.4.4. Gorputz expresaeraren aldetik, berriz, tetrapodioak dira.

5.4.5. Zortzi silabako errimadunak errenko etortzeak ematen dion azkartasuna eta grazia dira hemen ezaugarri bereziak.

5.5. Izendapena

– Eskema metrikoari begiratuz gero, ba dirudi egitura bereko estrofak direla funtsean, kantitatez desberdin baina azkartasun bera dutenak. Eta kopla izena denez multzoa adierazten duena, izen hau hartu dugu oinarri.

– Gero, kopla nagusia ezarri diogu, 8, 8, duguna, 10, 8 egiteko joera horri amore emanez, joera hau eta molde nagusia berdinak direnez esateko posibilitateen aldetik.

– Kopla luzea, berriz, ugaritasuna eta zailtasuna dierazteko ezarria dugu, batez ere.

(38) M. LEKUONA, *ibid.*, 307-311 or.

6. HAUTSIAK DERITZATEN MOLDEAK

6.1. Adibideak

1. "Iparragirren bozian ditut bertso berriak paratu Gipuzkoako euskal erriya al-banezake nombratu; asko ezkongai daude, gustorikan gabe, ezin dutela topatu; projimuari erakustia ezta izango pekatu" (39).
2. "Jesukristori kendu ezkeru pekatuakin bizitza, baldin ezpadet negar egiten arrizkoa dut biotza; guziok lagun, kanta dezagun bere penazko eriotza" (40).
3. "Iya guriak egin du, ba degu zeñek agindu; ez oraindik umildu, alkarrengana bildu; gerra nai duben guziya, berari kendu biziya!" (41).
4. "Ai gure antxiñeko guraso nobliak zituzten legiak, guk ainbat trabaju ta fetxarik gabiak! Adelantua dala uste du jendiak jarri dituztelako trenea ta tranbiak; ondoren dotozenak ez dira obiak" (42).
5. "Urrikaldu nintzan ta egin nion kura (bis) Etxian zan botika, gatza eta ura. Joxe Bentura: ez geiago etorri nere konbentura" (43).
6. "Aizak Mañuel, mañontzi urrengorako goraintzi, ez al akiken or pipa artzia etzela lizentzi? Jeniyo txar oiek utzi, bestela ezurrak autsi, giza-legia nola bear dan ezin erakutsi!" (44).

(39) A. ZAVALA, *Xenpelar bertsolaria...*, 167 or.

(40) J. URQUIJO, *Del Teatro Litúrgico en el País Vasco. "La Passion Trobada" de Diego de San Pedro (representada en Lesaca en 1566)*, in RIEV, 22 (1931), 211 or.

(41) A. ZAVALA, *ibid.*, 410 or.

(42) ID., *Zapirain Anaiak*, in "Auspoa", 123-124-125 z., Usurbil, 1975, 137 or.

(43) Herrikoia, J. J. Mitxelenari Oiartzunen jasoa.

(44) M. LEKUONA, *Literatura oral vasca*, *ibid.*, 382 or.

6.2. Eskema metrikoak

Zortziko nagusi hautsia	Seiko nagusi hautsia	Seiko berezi hautsia
10 –	10 –	8 A
8 A	8 A	8 A
10 –	10 –	7 A
8 A	8 A	7 A
7 B	5 B	8 B
7 B	5 B	8 B
8 A	8 A	
10 –		
8 A		

Hamarreko txiki hautsia	Zortziko txiki hautsia	Kopla bikoitz hautsia
7 –	7 –	8 A
6 A	6 A	8 A
6 A	7 –	10 –
7 –	6 A	6 A
6 A	5 A	8 A
7 –	7 –	8 A
6 A	6 A	10 –
7 –		8 A
6 A		6 A
7 –		
6 A		

6.3. Azterketa

6.3.1. Zortziko nagusi hautsia

a) *Adibide ezagunak*: Iparragirrenen doinua esaten zaio, herri-mailako erabilkeran. Adibide asko eta asko daude.

b) *Deskribaketa*: bederatzi bertso-lerro ditu. Silaba aldetik egitura hau dakar: 10 / 8 // 10 / 8 // 7 // 7 // 8 // 10 / 8. Beraz zortziko nagusiaren egitura bera, bi zazpiko horiek izan ezik. Errimen aldetik, berriz, zortzi silabakoak, 2, 4, 8, errimadunak; zazpikoak ere errimadunak dira, baina beste bigarren errima bat daramatelarik.

6.3.2. *Seiko nagusi hautsia*

a) *Adibide ezagunak*: oso gutxi; eta ez herri-mailan. Basterretxea lekei-tiarrak darabil Pasioko bertsotan (45).

b) *Deskribaketa*: zazpi bertso-lerro ditu. Silaba aldetik, 10 / 8 // 10 / 8 // 5 // 5 // 8. Beraz, seiko nagusiaren eitea du, baina bi bosteko sartzen ditu tartean. Eta errimen aldetik, berriz, zortzi silabakoak, 2, 4, 7, errimadunak dira; eta bi bostekoak ere bai, baina beste bigarren errima bat daramate.

6.3.3. *Seiko berezi hautsia*

a) *Adibide ezaguna*: Xenpelarren “Iya guriak egin du” kantu ezaguna.

b) *Deskribaketa*: silaben aldetik, gauza etena da: 8 // 8 // 7 // 7 // 8 // 8, egiten du. Eta errimen aldetik ere aldatu egiten du, 1, 2, 3, 4, lerroek errima bat daramate; eta 5, 6 lerroek beste bat. Errima ez du silabak gutxitzean aldatzen, berriz 8 silabakoekin berriro hastean baizik.

6.3.4. *Hamarreko txiki hautsia*

a) *Adibide ezagunak*: asko eta asko; “Esne saltzaillearena” eta “Oi, gure antziñako” esaten zaio gaurregun kantuzko ihardunaldietan, besteak beste.

b) *Deskribaketa*: hamarreko txikia bezala da, hau izan ezik: bigarren bertso-lerroa errepikatu egiten duela, alternantzia hautsiz; eta askotan textua ere aldatu egiten du, doinuaren arabera. Beraz, hamarreko txikia dugu, errepikarekin.

6.3.5. *Zortziko txiki hautsia*

a) *Adibide ezagunak*: bakarra, noski; Joxe Benturaren kantua.

b) *Deskribaketa*: silabak era honetan datoz: 7 / 6 // 7 / 6 // 5 // 7 / 6. Alternantzia galtzen du; eta bost silabakoa sartzen da tartean, hau ere errima berekoa.

6.3.6. *Kopla bikoitz hautsia*

a) *Adibidez ezagunak*: asko daude, hala nola “Aizak Mañuel mañontzi” “Mutilzarrarenak” eta abar.

b) *Deskribaketa*: silaben aldetik 8 // 8 // 10 / 6 // 8 // 8 // 10 // 6. Errimadunak, berriz, 1, 2, 4, 5, 6, 8 lerroak. Beraz, bi kopla elkarri josiak bezala; baina laugarrena eta zortzigarrena ere zortzi silabakoak izan beharrean, sei silabakoak dira. Hortik haustura.

(45) J. URQUIJO, *ibid.*, 211 or. eta hurrengoak.

6.4. Ezaugarri zabalak

6.4.1. Estrofaren egitura aldatzean legoke bereizgarriak nagusiena. Alternantzia, silaben zenbakia eta errima aldatzen dira. Alternantzia hausten dute isometrikoak eta errimadunak errenko sartuz; silabak gutxitzearekin ere barne-erritmoa hautsia gelditzen da, oinen aldetik tinkapenak laburtuz edo gutxituz (adibidez, tetrapodiok tripodio bihurtuz); eta errimak aldatzearekin egitura monorrimoa ere hausten da. Haustura hauek oso kontuan hartzeak dirudite, izena ezartzerakoan.

6.4.2. Idazteko posibilitateak, silabez beren jatorrizko moldeen berdintsuak izanik ere, haustura hauek monotonia uxatzen dute, eta bizitasuna eta berritasuna ekartzen.

6.4.3. Ez dira on jendaurrean bapatean aritzeko, ohitura eta prestakuntza berezirik ez bada behintzat neurri horiek erabiltzeko; baina etekin ona dute bertso-jartzaileen eginkizunean.

6.4.4. Gorputz-espresaera ere aldatzen dela esana dugu; etenaldietan aldatu ere, kantaldiaren erritmoa laburtuz.

6.5. Izendapena

6.5.1. "Iparragirrerren" doinuari zortziko nagusi hautsia esan diogu; zortziko nagusiaren egitura du, hausturan ezik.

6.5.2. "Iya guriak egin du", seiko berezi hautsia; seikoa, sei lerro dituelako; berezia, silaben aldaketa ez datorrelako bat errimen aldaketarekin, beste zenbait erredutan bezala.

6.5.3. Basterretxearena, seiko nagusi hautsia: seiko nagusia, goragoko ereduaren antzekoa delako; hautsia, bostgarren eta seigarren bertso-lerroan alternantzia, silaben zenbakia, eta bertso bi horien erritmoa ere aldatzen duelako.

6.5.4. Hamarreko txiki hautsia, "Esnasaltzaillearena"-ri eta "Oi, gure antziñako"-ari hamarrek txikia bezalakoa direnez, haustura duela ezik alternantzia eta textuaren errepikatzean, edota textu berria sartzean errepika zitekeen lekuan.

6.5.5. "Joxe Bentura"-renari zortziko txiki hautsia: zortziko txikiaren egitura du ia dena, baina bostgarren lerroan bosteko bat sartzen du, alternantzia hautsiz eta perpausa osatzeko posibilitateak bost silabetara laburtuz pasarte horretan.

6.5.6. "Aizak, Manuel mañontzi", koplak bikoitz hautsia: koplak bikoitza bi koplak elkarri josiak direlako; eta hautsia, silabak laburtzen dituenek, eta erritmoa aldatu ere bai laugarren eta zortzigarren lerroetan.

7. MOLDE BERDINAK

7.1. Adibideak

1. “Mehetegiko xakhurra
zangoz, errainez makhurra,
Berga bat luze muthurra,
larrutik hurbil hezurra,
urthe guzia barura,
zeren den toki xuhurra” (46).
2. “Arnoa zuten Bordalekotik,
edo bertzela taula zokhotik,
agollatua ongi uretik;
edan dezagun beraz gogotik,
horditziaren beldurra gatik,
horrek ez gaitik joko burutik” (47).

7.2. Eskema metrikoak

Seiko berdin nagusia	Seiko berdin handia
8 A	10 A
8 A	10 A
8 A	10 A
8 A	10 A
8 A	10 A
8 A	10 A
8 A	10 A

7.3. Azterketak

7.3.1. Seiko berdin nagusia

a) *Adibide ezagunak*: oso gutxi, bakarren batzuk. Guk aipatuko dugu “Mehetegiko xakhurra”.

(46) KKK, *Mehetegiko Xakhurra (Xuriko)*, 193 or.

(47) KKK, *Ezpeleta herrian*, 221 or.

b) *Deskribaketa*: sei lerro ditu, seiak berdinak (bakoitzak zortzi silaba) eta seiak errimadun monorrimoak.

7.3.2. *Seiko berdin handia*

a) *Adibide ezaguna*: “Ezpeleta herrian”. Adibide gutxi daude.

b) *Deskribaketa*: sei lerro ditu honek ere, seiak berdinak silabez, bakoitzak hamar silaba dituzenez; eta seiak errimadun monorrimoak.

7.4. Ezaugarri zabalak

7.4.1. Bertso-lerro librearen deskantsurik gabeak; azkarrak; errimaz oso aberatsak; magia-kutsua (48).

7.4.2. Idazteko posibilitateak: esaera laburrak osatu beharra, baina musikalitate handikoa eta dinamika oso bizia. Areagotu egiten du koplaren dinamika eta azkartasuna.

7.4.3. Gorputz-espresaeraren aldetik, zortzi silabakoa tetrapodia dugu, eta hamar silabakoa pentapodia. Azkeneko hau arraroagoa da bertso-laritzan.

7.4.4. Ez da erabiltzen bapateko bertsogintzan, jakina. Joko ona bertsoak idazteko. Teknika aparta eskatzen dute.

7.5. Izendapena

– Herrian ez du deitura jakinik horrelako bertso-motak, nik uste. Beraz, molde berezia osatzen dutenez, zerbait ezarri beharra zegoen. Eta hain zuzen, beste erduekin konparatuz gero, berdintasun berezia da beroien ezaugarria: berdinak silabez, berdinak errimaz, errimadun monorrimoak direnez.

– Beraz, berdinak deitzen diegu, hau adierazi nahirik: berdinak direla silabez bertso-lerroak, bertso-lerroak Hegoaldeko usuarioaren harira hartzen direlarik; eta berdinak beren errimak, sei errima berdinak.

– Azken zehaztasuna, “nagusia”, “handia”, elkarrengandik bereizteko. Ohar gaitzen, hemen “nagusia” esatean, zortzi silabako errimaduna dela eta tetrapodia; beraz neurri nagusiarekin doa ondoen “Handia”, beste hitz bat da, hamar silabako pentapodia nolarebait izendatzeko sortu duguna.

(48) M. LEKUONA, *ibid.*, 343-344 or.

8. MOLDE BEREZIAK

8.1. Adibideak

1. "Maite bat maitatzen det maitagarria;
begi ederra du ta guztiz argia;
daukat urruti,
baiñan ezin kendu det buruti
aren itxura.
Saldu al ba'liteke pisura
urriaren truke,
nork erosi faltako ez luke" (49).
2. "Iragan besta biharamunian,
berek dakiten xoko batian,
lau andre hirur mutxurdin,
bat alarguna jarriak itzalian,
harri xabal bat belhaunen gainian,
hari ziren, hari ziren trukian" (50).
3. "Albaiteruen sala
demoniyo artan,
demoniyozko estropezu bat
egin nuen bertan.
Demoniyuak emen,
demoniyuak an,
demoniyuak nunai
gorputzaren bueltan.
Demoniyuak sasoi zeukaten
demoniyuetan!" (51).
4. "Frantzesaren ideak
beti aldrebes,
gaur lau baldin badira
biyar baterez;
aragiya len eltzian,
belar biltzen baratxian,
kardaberak jate 'ituzte
dirubak aitzian" (52).
5. "Nagusi jauna, auxen da lana,
amak bigaltzen nau berorregana.
Ai, bigalduko bazinduke maiz,
zu ikusita kontsolatzen naiz,
sinista zazu,
joso zoraturikan nakazu!
orren polita nola zera zu?" (53).

(49) S. ONAINDIA, *Milla euskal-olerki eder*, "Karmeldar Idaztiak", Zarauz, 1954, 322 or.

(50) KKK, *Iragan besta biharamunian*, 223 or.

(51) A. Zavala, *Txirrita...*, 32 or.

(52) A. Zavala, *Xenpelar...*, *Frantzesaren ideak*, 213 or.

(53) I. BIZKARRONDO, "BILINTX", *Bertso ta lan guziak*, in "Auspoa", 12 z., Zarauz, 1961, 77 or.

8.2. Eskemak metrikoak

“Maite bat maitatzen det”	“Iragan besta” bihar	“Albaiteruen salan”
12 A	11 A	7
12 A	11 A	6 A
5 B	20 A	10 –
10 B	11 A	6
5 C	11 A	7 –
10 C		6 A
5 D		7 –
10 D		6 A
		10 –
		6 A

“Frantzesaren ideak”	“Juana Bixenta Olabe”
7 –	10 A
5 A	11 A
7 –	10 B
5 A	10 B
8 B	5 C
8 B	10 C
8 –	10 C
6 B	

8.3. Azterketa**8.3.1. “Maite bat maitatzen det”**

a) *Egilea eta izenburua*: J. I. Iztuetak egina; “Kontxexiri” deritzana.

b) *Deskribaketa*: silabak honela doaz: 12, 12, 5, 10, 5, 10, 5, 10. Eta lau errima desberdin ditu, honela uztartuak: lehenengo bertso-lerrokoa bigarren-goarekin, hirugarrenkoa laugarren-goarekin, bostgarrenkoa seigarren-goarekin, zazpigarrenkoa zortzigarren-goarekin.

8.3.2. “Iragan besta biharamunean”

a) *Egilea eta deitura*: J. B. Elissamburuk egina; eta saioaren hasierakohitzak ditu izenburu.

b) *Deskribaketa*: silabak honela doaz: 11, 11, 20, 11, 11. Monorrimoa da, errimak bertso-lerro bakoitzaren bukaeran doazela.

8.3.3. "Albaiteruen sala"

a) *Egilea eta deitura*: Txirritak erabilia; eta hasierako hitzen bidez izendatzen duguna.

b) *Deskribaketa*: silabak honela doaz: 7, 6, 10, 6, 7, 6, 7, 6, 10, 6. Monorrimoa da; eta errimak pareak direnetan jartzen dira.

8.3.4. "Frantzesaren ideak"

a) *Egilea eta deitura*: Xenpelarrek erabilia, hasierako hitzekin izendatua.

b) *Deskribaketa*: silabak honela doaz: 7, 5, 7, 5, 8, 8, 8, 6. Eta bi errima ditu; bat, bigarren eta laugarren bertso-lerrotan egiten dena; eta bestea, bostgarrenean, seigarrenean, eta zortzigarrenean egiten dena.

8.3.5. "Nagusi jauna"

a) *Egilea eta deitura*: Bilintzek erabilia, eta "Juana Bixenta Olabe" deitzen zaiona.

b) *Deskribaketa*: silaben kontua honela emanik dator: 10, 11, 10, 10, 5, 10, 10. Eta hiru errima ditu. Lehenengoa, aurrenekoa eta bigarrena hoskide-tuz; bigarrena, hirugarren eta laugarren lerroak hoskidetuz; eta hirugarrena, bostgarren, seigarren eta zazpigarren lerroak hoskidetuz.

8.4. Ezaugarri zabalak

8.4.1. Desberdinak gertatzen dira beste ereduekin konparatuz gero. Desberdin egituraz, eta desberdin erabilkeraz.

8.4.2. Eredu hauetako gehienak poema bakar bati loturik agertzen dira beti. Egin diren beste saioek ez dute izan arrakastarik, eskuarki behintzat.

8.4.3. "*Kontxexiri*": gauza ez-ohitua gertatzen da: bertso-lerroak bina-ka uztartuak eta lau errima sartuz egina, oso atsegina gertatzen da. Gero, hamarrekoak ez datoz beti 5 + 5 ebakiak musikaren inposaketaz, eta honek ere berritasuna ematen dio, molde nagusiaren eta ikusi ditugun beste hamar silabakoen erritmoa hautsiz.

8.4.4. "*Iragan besta biharamunian*": idazteko posibilitate zabalak ditu, silaben aldetik: batez ere, 20 silabetako lerroa ba du, erdiparean, nahiko oparoa. Grazia handikoa dugu azken lerroko errepika, launa silabetakoa, "hari ziren, hari ziren..." ironidun hori.

8.4.5. "*Albaiteruen sala*": hamarreko txikia baino oparoagoko posibilitateak eskaintzen dizkigu, tartean zazpi silabakoaren orde z hamarreko librea

sartzen duenez. Musika aldetik, tonika baino lehenagoko bertso-lerroan jar-tzen du hamar silabako hori.

8.4.6. "*Frantzesaren ideak*": Xenpelarren konbinaketa hau oso berezia gertatzen da, bi errima dituenez, eta bi eratako konbinaketak ere bai, bertso-lerroen aldetik: 7, 5, alternantziak eginez, eta gero bi zortzi silabako 8, 8, errenko eta elkarrekin hoskidetuz, eta azkenean 8 silabako bertso-lerro librea eta 6 silabako errimaduna txandatur. Gauza bizia gerta daiteke; teknika ona eskatzen du.

8.4.7. "*Juana Bixenta Olabe*": idazteko posibilitateak izan ditzake sila-ben aldetik, bertso-lerroak luzeak direnez. Hiru errima eramateak ere posibili-tate horiek ugari ditzake. Baina teknika ona eskatzen du bere erabilkeran, ofi-zio handia.